

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Garatuko dugun ideia, itsuentzako makil berezi eta lagungarri bat da. Makil honek beste makilak ez dituzten hainbat funtzio ditu, eta helburu oso argi bat dauka: itsuei hainbat laguntza ezberdin eskainiko ditu.



Makila teknologia berritzaile bat erabiliko du, pertsona hauei aipatutako laguntza eskainiko diena. Ezaugarri nagusia bibratzen duela da. Sensore batzuen bidez haien bidea oztopatzen dituzten objektuak hautematen ditu. Sensore hauek, makilaren behealdean nahiz erdialdean kokatuta daude, horrela, lurrian dauden objektuen gain, beste altuera batzuetan daudenak ere hautematen ditu. Makila bibratuko du objektuen kontra talka egin aurretik, eta gainera google maps-a izango du integratuta. Denbora luzerako autonomia du, bost ordurako, hain zuzen. Kargagailu baten bidez kargatzen da eta karga azkarrekoa da, horrela, denbora ez oso luzean makila erabiltzeko prest egongo da. Hortaz gain, eguzki-plaka bat du goikaldean. Plaka horren bidez, erabiltzen den bitartean eguzkiaren

argiarekin kargatuko da, eta modu horretan, autonomia gehiago du. Plakaren bidez, makila ez da guztiz kargatuko baina hala ere, denbora tarte luze batean erabili behar izatekotan, lagungarria izango da. Gure produktuak eskaintzerakoan, beste bat ere izango dute eskuragarri. Makila 800€-ko balioa izango du eta makila erosterakoan bi kolore egongo dira eskuragarri: zuria eta berdea. Bi kolore hauek pertsonen ezaugarrien arabera izango dira, zuria, guztiz itxu daudentzako eta berdea ikusteko ahalmena gutxiago dutenentzako.

Produktu hau sektore honen barruan dauden pertsonen laguntza eskaintzeko asmoz egin dugu. Gure inguruan gai honetan arazoak izan dituzten pertsonak ikusi ditugu eta horregatik bururatu zitzaigun.

